

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Enplegu Zerbitzuak laneratzeko aholkularitza pertsonalizatuagoa eta eraginkorragoa emango du

*Gobernuak erakunde horren Modernizazio Plana onartu du, eta haren barnean 2015ean arreta eta orientazioko tresna berriak ezartzea sartzen da*

Miércoles, 10 de diciembre de 2014

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) informatika eta arreta-sistemen tresna berriak ezarriko ditu 2015ean; haiei esker, bere zerbitzuak (enplegua bilatzeko aholkularitza eta orientazioa) era pertsonalizatuagoan eta kasu bakoitzari egokituta garatu ahalko ditu; hala, langabeen laneratzeko orduan eraginkortasuna areagotuko da.



Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bulegoak.

Horiek dira NEZen Modernizazio Planean aurreikusitako jardueraren ildo nagusiak 2015-2016 aldirako, Nafarroako Gobernuak gaur onartutakoak. Berrikuntza nagusiak, alde batetik, informatika-programa bat ezartzean datza eta, hari esker, eskatzaileen enplegu-aukerak zehatzago zehaztu ahalko dira eta hori lortzeko ibilbide egokiena; bestetik, enplegu-agentzietan arreta emateko aurrez hitzordua eskatzeko sistema bat abian jartzea.

Iaz, NEZek informazio eta aholkularitzako 118.425 zerbitzu eman zituen. Haietatik, 69.501 orientazio pertsonaleko jarduerari dagokie eta beste 48.924 informazio profesionalari.

### Modernizazio-planaren helburuak

Gaur onartutako modernizazio-planak 2014-2016 aldirako Enplegurako Suspertze Estrategiaren helburuak garatzen ditu praktikan, Administrazio Zentralak onartutakoa, eta 2015-2017 aldirako Ekonomia Jarduera eta Enplegua Suspertzeko Akordioarenak, berriki Nafarroako Gobernuak eta eragile sozial eta ekonomikoek berriki onartutakoa.

Esparru horrekin bat etorritik, planaren jardueraren printzipioak honako hauek dira:

- Enplegua eskatzen dutenen enplegarritasuna hobetu eta erraztea, langabeziak gehien astintzen dituen taldeena (iraupen luzeko langabeak, 55 urtetik gorakoak...).

- Enplegurako Lanbide Heziketako kalitatea hobetzea.
- Enpleguaren politika aktibo eta pasiboen arteko lotura sendotzea.
- Ekintzailatza sustatzea.
- Enplegua hazi eta hobetzeko bideak sortzea programen ardatz gisa.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren barnean herritarrei beharrei bideratutako kudeaketako kalitate-sistemak ezartzea.
- Enpleguaren politika aktiboen aurrerapena, plangintza, jarraipena eta ebaluazioko tresnak hobetzea.

### **Berrikuntza nagusiak**

Aurrez aipatu denez, planaren berrikuntza nagusien artean informatika-tresna bat ezartzea dago eta, haren bidez, erabiltzaile bakoitzarentzat banakako enplegagarritasun pertsonalizatuaren diagnostikoa egingo da. Horrenbestez, zer lanbide-profil duen zehaztu ahalko da, honako hauek identifikatzeko helburuarekin: enplegu-eskatzailen trebetasun, gaitasun, prestakuntza, esperientzia, interes, familia-egoera eta izan daitezkeen lanbide-aukerak.

Diagnostiko zehatz horri esker, laneratzeko ibilbideen zehaztasuna eta eraginkortasuna hobetuko dira (enplegu bat lortzeko beharrezkoak diren jarduerak edota prestakuntza). Alde horretatik, aurreikusten da erabiltzaileak eta NEZek ibilbide hori elkarrekin egitea, eta bertan jasoko dira, faktore pertsonalak, gaitasunen azterketa (profesionalak eta zeharkakoak), enplegua bilatzeko ekintzen kronologia...

2015erako beste berrikuntzetako bat da, enplegu-agentzietan aurrez hitzordua eskatzeko sistema bat abian jartzea. Sistema horren xedea, kalitate handiagoko arreta ematea da, jendeak beharrik gabe itxaron ez dezan.

Gainera, modernizazio-planaren barnean honako neurri hauek sartzen dira: langabeziak bereziki eragindako taldeentzako orientazioko berariazko ekintzak garatzea (55 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak...); arreta homogeneousko prozedura bat ezartzea NEZen bulego guztietan; bulego horien arteko koordinazioa hobetzea; enplegu-zerbitzuak on-line bidez sustatzea Nafarroako enpleguaren ataria erabiliz; enplegu-eskaintzaren gaineko informazioa hobetzea beste komunitate batzuetakoak sartuz; eta herritarrei emandako zerbitzuen ebaluazio-sistemak ezartzea.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak hamaika agentzia ditu, hamar jende guztiarentzat eta berariazko beste bat enpresetarako, eta honako udalerrri hauetan banatuta daude: Altsasu, Agoitz, Lizarra, Lodosa, Iruña, Doneztebe, Tafalla eta Tuter.